

## 1. SAIOA: IPUINA

**IRAUPENA:** Ordu bat inguru

### SAIOAREN GARAPENA

1. Lehenengo egun honetan, aurrezagutzak zeintzuk diren ikusteko ipuin bat kontatuko diegu.
2. Ondoren ipuinean agertzen diren animalien inguruko galdera botako geniezkieke.
3. Ipuina animalia lagun talde bati buruz doa, denok batera bizitzera joatea erabakitzen dutela baina horietako batek zailtasunak ditu atetik sartzeko.
4. Ipuina guk asmatuko dugu eta honen asmoa animaliak ezagutzen hastea da.

### BALIABIDEAK

- Ipuina

### HELBURUAK

- Enpatia lantzea.
- berezitasunak errespetatzen ikastea.

### EBALUAZIO ALDIA

***BAI***

***ZER?***

- Irakaslearengan: Haurren aurrezagutzak zeintzuk diren zehaztuko ditugu, jardueraren amaieran helburuak lortu diren edo ez jakiteko.
- Ikaslearengan: Planteatutako jarduera didaktikoaren nondik norakoak ulertu ditu

## 2. SAIOA: NOLA DEITZEN DA?

**IRAUPENA:** Ordu bat inguru

### **SAIOAREN GARAPENA**

1. Aurrezagutzak jakinda animaliak identifikatzeko ariketa bat prestatu dugu.
2. Animalia batzuen irudiarekin eta haien izenarekin txartelak egingo dira.
3. Irakasleak lurrian animalien izenen txartelak lurrian jarriko ditu izenak ikusten direlarik eta berak animalien irudien txartelak izanen ditu.
4. Haurrak izenen txartelen inguruan eseriko dira borobil erdia egiten eta irakaslea aurrean. Honek animalien txartel bat hartuko du eta hurrek txandaka, bere izena zein den esanen du eta berari dagokion izenaren txartela hartu beharko du.
5. Haurrak egin beharrekoa laguntza behar badu, ikaskide bati, berak nahi duenari, laguntza eskatu ahalko dio. Asmatzen duenak, bi txartelak, izenarena eta irudiarena, hartuko ditu eta puntu bat izanen du.

### **BALIABIDEAK**

- Animalien irudien txartelak
- Animalien izenak dituzten txartelak

### **HELBURUAK**

- Aho hizkuntza eta hizkuntza idatziaren erlazioaren hastapenak sortzea
- Animaliak identifikatzea
- Arreta mantentzea
- Parte hartze aktiboa

### **EBALUAZIO ALDIA**

***BAI***

***ZER?***

- Gaiarekiko interesa piztu den edo ez behatu.
- Animalien ezaugarriak zeintzuk diren esateko gaitasuna garatzen doa.
- Adi egoteko gaitasuna lortu da.

### 3. SAIOA: AURKITU BIKOTEA

**IRAUPENA:** Ordu bat inguru

#### **SAIOAREN GARAPENA**

1. Animaliak identifikatzen jarraitzeko beste jarduera bat planteatu dugu.
2. Oraingoan hainbat animalien irudiekin bina txartel eginen ditugu. Lurrean buruz bera jarriko ditugu eta hurrek haien inguruan jarriko dira.
3. Txandaka, bina txartel hartu beharko dute, bikoteak bilatzen saiatzen direlarik.
4. Bikotea aurkitzen badute, animalia horren izena eta ezaugarri bat esan beharko dute.
5. Ongi esatekotan, txartelak hartuko ditu eta puntu bat izanen dute, gaizki egiten badute berriz, txartelak zeuden tokian utziko dituzte eta hurrengoaren txanda izanen da.

#### **BALIABIDEAK**

- Animalien irudien bina txartel

#### **HELBURUAK**

- Animalien ezaugarriak identifikatzea

#### **EBALUAZIO ALDIA**

***BAI***

***ZER?***

- Gaiarekiko interesa piztu den edo ez behatu.
- Animalien ezaugarriak zeintzuk diren esateko gaitasuna garatzen doa.
- Adi egoteko gaitasuna lortu da.
- Aho hizkuntza behar bezala erabiltzen duen ala ez.

#### 4. SAIOA: ZEIN ANIMALIA DA?

**IRAUPENA:** Ordu bat inguru

##### **SAIOAREN GARAPENA**

1. Imitazio jolasa egingo dugu. Lehenik eta behin animalia ezberdinen ezaugarriak zeintzuk diren gogoraraziko ditugu.
2. Gero animalien irudien txartelak prestatuko ditugu ekosistema bakoitzeko hiru txartel prestatuz.
3. Haurrak borobil handi batean eseriko ditugu eta bat erdira aterako da.
4. Erdian dagoen haurra txartel bat hartuko du eta bera bakarrik irudia ikusiko du. Hori eginda, ikusitako animalia hori imitatzen hasiko da.
5. Gainontzeko haurrak imitatutako animalia zein den asmatu beharko dute eta hori ez ezik non bizi den esan beharko dute.

##### **BALIABIDEAK**

- Animalien irudien txartelak

##### **HELBURUAK**

- Animalien soinuak identifikatzea

##### **EBALUAZIO ALDIA**

***BAI***

***ZER?***

- Animalien soinuak imitatzeko gaitasuna garatzen doa.
- Adi egoteko gaitasuna lortu da.

## 5. SAIOA: KONTINENTEAK

**IRAUPENA:** Ordu bat inguru

### SAIOAREN GARAPENA

1. Saio honetan kontinenteak nola banatzen dira aztertuko dugu.
2. Oraingoan munduko bola txiki batzuk eta kaxa batzuk banatuko zaizkie haurrei.
3. Haurrak taldeka jarriko dira eta talde bakoitzari zazpina bola eta zazpina kaxa emango zaie.
4. Kutxan haurrak zulo bat egingo dute munduko bola txikiaren tamainakoa, gero bola zulo horretan ipintzeko.
5. Haurren artean kontinenteak banatuko dira eta bakoitzak bolatxo bat hartuz tokatu zaion kontinentea margotuko du akuarela eta pintzelak erabiliz.
6. Horrela talde bakoitzak zazpi munduko bolak izango dituzte, bakoitza hori bai, bere kontinentearekin markatuta.
7. Ondoren kutxa bakoitzean zazpi kontinenteen izenak idatziko dira.
8. Azkenik, lehen kutxan egindako zuloan, eta kutxan jarritako izenak begiratzuz, kontinente bakoitzari dagokion munduko bola jarriko dute.
9. Honela, argi edukita, kontinenteen kokapena ikasiko dute.

### BALIABIDEAK

- Plastikozko kutxak
- Akuarelak eta pintzelak
- Munduko bola txikiak
- Papera
- Boligrafoa
- Kutxaren zuloa mozteko irakasleak erabiliko duen materiala.

### HELBURUAK

- Kontinenteen kokapena ikastea.
- Kontinenteak identifikatzea.
- Hizkuntza idatzia lantzea.
- Motrizitate fina lantzea.

### EBALUAZIO ALDIA

***BAI***

***ZER?***

- Kontinenteak identifikatzen ikasten ari da.
- Hizkuntza idatziarekiko hastapenak

## 6. SAIOA: URA, AIREA EDO LURRA?

**IRAUPENA:** Ordu bat inguru

### SAIOAREN GARAPENA

1. Saio honetan animalien sailkapen bat egingo da.
2. Ariketa egin baino lehen hurrek materiala prestatuko dute.
3. Animalien irudiak moztuko dituzte.
4. Talde bakoitzeko hiru pote hartuko dituzte. Bat urez beteko dute, beste bat aireaz eta azkenekoa lurraz.
5. Denak beteta egonda, guztiei tapakia jarriko zaie eta oihal baten mugan hiru poteak jarriko dira, bata bestearen ondoan.
6. Hori eginda, hurrek animaliak dagozkien zutabeen jarri beharko dituzte.  
Adibidez: dingoa, lurra duen potearen aurrean; arotz txoria, airea duen potearen aurrean eta belugak ura duen potearen aurrean.

### BALIABIDEAK

- Animalien irudiak
- Guraizeak
- Oihalak
- Poteak
- Tapoiak
- Ura
- Lurra

### HELBURUAK

- Ikaskideak entzutea
- Animalien izenak eta ezaugarriak gogoratzea
- Talde lanean aritzea
- Logika erabiltzea

### EBALUAZIO ALDIA

**BAI**

**ZER?**

- Ikaskideak errespetuz entzuten ditu

- Dituen ezagutzak erabiltzen ditu
- Talde lanean aritzeko gaitasuna erakusten du



## 7. SAIOA: BINGOA

**IRAUPENA:** Ordu bat inguru

### SAIOAREN GARAPENA

7. Saio honetan animaliak eta haien ezaugarriak gogorarazteko jolasa egingo dugu. Jolasa bingo bat izango da.
8. Horretarako haur bakoitzari animalien irudiak dituen karteltxo bana emango zaie.
9. Irakasleak poltsa batean aurreko egunetan ikusitako animalia guztien irudiak sartuko ditu.
10. Hurrei jolasa azalduko zaie.
11. Irakasleak irudiak banan banan ateratzen joango da. Irakasleak ateratzen den animalia bakoitzaren inguruko galdera bat botako du. Adibidez: “Nola mugitzen da kangurua?”...
12. Hurrek irakasleak ateratako irudia haien txarteletan izatekotan animalia hori markatu beharko dute.
13. Irabazlea irudi guztiak ezabatzen dituen lehenengo ikaslea izango da.

### BALIABIDEAK

- Animalien irudiak
- Animalien irudiak dituzten kartoiak
- Poltsa bat
- Arkatza

### HELBURUAK

- Animaliak eta haien ezaugarriak lantzea eta ikastea
- Arreta mantentzea
- Ikaskideekiko errespetua izatea
- Emozioak lantzea

### EBALUAZIO ALDIA

**BAI**

**ZER?**

- Arreta mantentzen du
- Animalien izenak eta ezaugarriak ezagutzen ditu
- Ikaskideekiko errespetua erakusten du

## 8. SAIOA: BASORA GOAZ!

**IRAUPENA:** Egun osoa

### SAIOAREN GARAPENA

1. Saio honetarako aterladi bat egingo dugu
2. Hurrekin basora edo mendira joango gara animaliak ikusteko helburuarekin.
3. Bertan egonda animaliak ikusteaz gain, hauek entzuten saiatuko gara
4. Baita ere han gaudelarik zaborrari eta kutsadurari buruz hitz egingo diegu. Horrela pixkanaka aldaketa klimatikoaz kontzientzia har dezaten.
5. Lurreko hostoak, pinaburuak eta makiltxoak hartuko ditugu
6. Klasera bueltatuko gara eta plastika tailerrean, talde talde handietan, habiak prestatuko ditugu, gero leihoan jartzeko.

### BALIABIDEAK

- Hostoak
- Kataloxak
- Makiltxoak
- Pinaburuak
- Erretxina

### HELBURUAK

- Animaliak ikustea eta ezaugarriak ezagutzea
- Animalien soinuak desberdintzea
- Aldaketa klimatikoaz jabetzea
- Ingurunearekiko errespetua erakustea
- Besteei entzuteko gaitasuna izatea
- Kooperazioa ematea

### EBALUAZIO ALDIA

**BAI**

**ZER?**

- Ingurunea errespetatzen du.
- Ikaskideak laguntzen ditu

- Animaliak ezberdintzen ditu
- Ikaskideekiko errespetua erakusten du

## 9. SAIOA: ANIMALIEN BIZITOKIAK

**IRAUPENA:** Bi ordu inguru

### SAIOAREN GARAPENA

1. Egingo dugun lehen gauza ikasitakoa gogoraraztea izango da.
2. Gero animalia bakoitza ekosistema propio bat duela azalduko diegu.
3. Hori eginda klasea txoko desberdinetan banatuko ditugu
4. Txoko bakoitzari ekosistemen izen bat jarriko diogu.
5. Txokoak zehaztuak daudelarik, hauek apaintzen hasiko gara. Adibidez: Basoa hostoak, makiltxoak, pinaburuak... erabiliz apainduko dugu.
6. Hori eginda hurrei txoko bakoitzari dagozkion animaliak jartzea eskatuko zaie. Adibidez Basamortu hotzean hartz polarra, beluga, itsas txakur polarra, orka, pinguino enperadorea, itsas elefantea eta mortsaren irudiak kokatu beharko dituzte.
7. Jarduera bukatuta hurrei ariketa egiteko zailtasunak izan dituzten edo ez galdetuko zaie. Adibidez: “Kostatu zaizue kiwia kokatzea?”

### BALIABIDEAK

- Animalien irudi handi plastifikatuak
- Guraizeak
- Oihalak
- Area
- Makiltxoak
- Ura
- Lurra
- Hostoak
- Pinaburuak
- Cactus-en irudiak
- Zuhaitz ezberdinen irudiak
- Fruituak
- Loreak
- Itsaskina

### HELBURUAK

- Ikaskideak entzutea

- Animalien izenak eta ezaugarriak gogoratzea
- Talde lanean aritzea
- Logika erabiltzea

## **EBALUAZIO ALDIA**

**BAI**

**ZER?**

- Ikaskideak errespetuz entzuten ditu
- Dituen ezagutzak erabiltzen ditu
- Talde lanean aritzeko gaitasuna erakusten du

## 10. SAIOA: MURALA

**IRAUPENA:** Bi ordu inguru

### SAIOAREN GARAPENA

1. Saio honetan mural bat egingo dugu.
2. Lehenik eta behin orma sei zatitan banatuko dugu eta bakoitzean kontinente bateko izena jarriko dugu
3. Ondoren, kontinente bakoitzeko ekosistemak zeintzuk diren jarriko dira eta hurrei gustukoen izan duten animalia marraztea proposatuko zaie
4. Behin marraztuta, hurrei non kokatu beharko litzateke galdetuko zaie. Ez jakitekotan ikaskideei laguntza eskatuko zaie eta lan kooperatiboan adostuko da non jarri.
5. Ziurrenik errepikapen anitzak egonen dira baina hori kontuan hartu gabe marrazki guztiak itsasiko dira gelako muralean.

### BALIABIDEAK

- Erregela
- Guraizeak
- Paperak
- Arkatzak
- Margoak
- Kontinenteen izenak
- Ekosistemen paisaiak edo irudiak
- Itsaskina

### HELBURUAK

- Animaliak eta haien ezaugarriak birpasatzea
- Ikaskideekiko errespetua izatea
- Talde lanean aritzea
- Besteei entzuteko gaitasuna izatea
- Emozioak eta gustuak adieraztea

### EBALUAZIO ALDIA

**BAI**

**ZER?**

- Ikaskideek esaten dutena entzuten du
- Animalien izenak eta ezaugarriak ezagutzen ditu
- Kontinenteak eta ekosistemak bereizten ditu
- Ikaskideekiko errespetua erakusten du
- Dituen jakintzak erakusten ditu